

Kutxabankek 3,8 milioi kWh-tik gora murriztu zuen 2023an energia kontsumoa

- Isuritako CO2 bolumena % 18 jaitsi zen eta % 93raino iritsi zen 2019ko emaitzeekin alderatuta
- Gasaren erabilpena % 25 murriztu da, ohikoa baino tenperatura beroagoengatik udazkenean berogailu gutxiago erabili behar izan zelako

2024ko apirilaren 2an. Kutxabank Taldearen energia-kontsumoa **3,8 milioi kWh-an murriztu** zen 2023an, aurreko urtearekin alderatuta **% 12 jaitsita**.

Kontsumoaren murrizketa honek kontsumitutako energiak sortzen duen **CO2 isurien** bolumena nabarmen gutxitu zuen (1. Eta 2. Esparrua). Jaitsiera hori **% 18koa** izan zen 2022arekin alderatuta, eta **% 93raino** iritsi zen 2019arekin alderatuta, Kutxabank Taldeak % 100 energia elektriko berriztagarria erabili baino lehen azken urtea.

Bere lan-zentroetan energia-kontsumoa **murrizteko** hainbat neurri ezartzen jarraitu zuen, Taldearen energia-eraginkortasuna hobetzeko, eta hori izan zen beherakadaren arrazoi nagusia.

Murrizketa handienetakoa Taldeak berogailuetarako erabiltzen duen **gas naturalaren kontsumoan** gertatu zen, **% 25 jaitsi** baitzen aurreko urtearekiko.

2023an zehar sukurtsalen sare zabalean **erreforma integralak** egin dira, **klimatizazio-ekipoak** berritu dira eta datuak tratatzeko hiru CPD instalazioetako **hozte- eta hornidura elektriko-ekipoak** egokitu dira.

Energiaren esparruan Kutxabankeko bulegoen sarean egin da ekimen handiena, isolatzaile termikoak hobetu baitira, argiztapena kontrolatzeko sistemak eta argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeko sistemak jarri dira, edota igorpen termiko baxua eta isolamendu akustiko hobeak duten leiho eta ateak jarri dira, besteak beste.

Gaur egun, Kutxabank bere bulego-sarean **inmotikako proiektu globala** garatzen ari da, eraikin nagusietan dagoeneko jarri eta probatutakoa, klimatizazioa, argiztapena eta berokuntza sistemak urruneko sistemen bitartez kontrolatu ahal izateko. Sistema honen bitartez, iaz 161 mila kWh elektrizitate aurreztu ziren guztira.

Kutxabankek sortzen dituen zuzeneko isurien bolumena ez da oso handia, baina Taldeak jabetzan dituen basoek konpentsatzen dituzte. Kutxabankek **980 hektarea** baso

kudeatzen ditu Bizkaian eta Gipuzkoan. Baso hauetan biodibertsitatean aberatsak diren hainbat ekosistema daude.

Kutxabankek ingurumen-politika instituzional oso aktiboa du, eta Ingurumeneko Jarduera Egokien Gida bat du, Kutxabanken lan egiten duten pertsona guztien sentsibilizazioa eta konpromisoa hobetzeko.

Gida honek ingurumen-inpaktua minimizatzen duten neurriak sustatzen ditu, energia-eraginkortasunaren, bereizketaren eta hondakinen kudeaketaren bidez, edo baliabide eta material gutxiago erabiltzea sustatuz, besteak beste.

Emisio gutxiko ekonomia baterako trantsizioan ere konpromiso nabarmena du Bankuak, finantzazioa ingurumen-inpaktua duten proiektuetara bideratzen baitu, jasangarritasun irizpideak biltzen dituen **kreditu-sailkapen** baten bidez eta bezeroei energia-eraginkortasunaren arloan laguntza eskaintzen die.

Kutxabankek **naturarekiko errespetua sustatzen duen finantza produktuen katalogo zabala** du. Energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren etxebizitzak eskuratzea eta aseguratzea, ibilgailu elektriko eta hibridoak edo etxetresna elektriko eraginkorrak erostea errazten du. Gainera, bezero dituen enpresei ekonomia jasangarrira trantsizioa egiten laguntzen die.

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta European arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.